

METROKO ETA BILBOKO TRANBIAREN ZERBITZU BEREZIAK ASTEAZKENEAN ATHLETIC CLUB – GRANADA C.F. NORGEHIAGOKA DELA ETA

Asteazkenean, otsailak 12, Euskotrenek Metroko eta tranbiako zerbitzu bereziak eskainiko ditu Athletic Club – Granada C.F. partidua dela eta. Tranbian mozketa burutuko da ere, 22:50etik 23:10era burutuko da. Mozketa hori Bilboko Udalak koordinatutako udal Emergentsia Planaren barruan dago.

METRO

Partiduaren ostean, zerbitzu berezia eskainiko da 3.Linean:

- Matiko – Kukullaga: 23:17, 23:36, 23:51
- Kukullaga – Matiko: 23:34, 23:49, 0:04

TRANBIA

Atxuritik La Casillarako 10 minutuko zirkulazioez gain, Euskotrenek Pio Barojatik Ospitalera irtengo diren zenbait zerbitzu berezi ere eskainiko ditu ondorengo orduetan: 20:01ean, 20:31n eta 20:41ean.

Partiduaren irteera modu egokian egiteko, 22:50etik 23:10era bitartean, gutxi gorabehera, zerbitzuaren mozketa partziala burutuko da La Casilla eta Euskalduna artean. Behin mozketa bukatuta Atxurirako eta La Casillarako tranbiaren zirkulazio bereziak martxan jarriko dira.

Partiduaren ondoren San Mamesetik hurbil dauden geralekuetan pilaketak ekiditeko, Euskotrenek Euskaldunako geralekura joatea aholkatzen du. Geraleku horretatik tranbiaren zerbitzu bereziak irteten dira. Bilboko tranbiarako sarrera errazagoa eta azkarragoa izan dadin, Euskotrenek ordaintzerakoan Barik erabiltzailea gomendatzen du.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, erabiltzaileek 944 333 333 telefono zenbakira dei dezakete, tranbiaren www.euskotren.eus web gunea kontsulta dezakete, edota twitterreko @euskotrenEJGV gunean eta Euskotrenen APP ofizialean

Igorpen data: 2020ko otsailaren 11n

Euskadi, auzolana, bien común

